

eman ta zabal zazu




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Artearen Historia USE 2019

www.ehu.es





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2019ko UZTAILA

ARTEAREN HISTORIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2019

HISTORIA DEL ARTE

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako BATI erantzun behar diozu. Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a UNA de ellas. No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

A AUKERA

Erantzun bi galdera hauetako **BATI** (5 puntu):

1. Greziar artea eta haren bilakaera historikoa. Ordena arkitektonikoen konfigurazioa eta ondoren izan zuten eragina. Giza irudiaren eboluzioa eskulturaren bidez.
2. Eskultura barrokoa. Ezaugarri orokorrak eta kontzeptzio motak. Italiako eskulturaren eta Espainiako imajinagintzaren arteko aldeak.

Egin bi irudi hauen iruzkina: (2,5 puntu bakoitzak)

OPCIÓN A

Responde a **UNA** de estas dos preguntas (5 puntos):

1. El Arte Griego y su evolución histórica. La configuración de los órdenes arquitectónicos y su influencia posterior. La evolución de la figura humana a través de la escultura.
2. La escultura barroca. Características generales y diversas concepciones. Diferencias entre la escultura italiana y la imaginería española.

Analiza estas dos imágenes: (2,5 puntos cada una)



Arnolfini senar-emazteen erretratua - Jan Van Eyck, El matrimonio Arnolfini



Arlekinaren inauteria - Joan Miró, El carnaval del Arlequín



B AUKERA

Erantzun galdera hauetako **BATI** (5 puntu):

1. Cinquecento eta Goi Errenazimentuko artista nagusiak. Manierismoranzko bilakaera.
2. Arkitektura eta hirigintza XIX. mendean. Joera historizista eta eklektikoak. Burdinaren arkitektura eta haren eraikuntza modu berriak. Funtzionalismoaren hastapenak.

Egin bi irudi hauen iruzkina: (2,5 puntu bakoitzak)

OPCIÓN B

Responde a **UNA** de estas dos preguntas (5 puntos):

1. El Cinquecento y las grandes figuras del Alto Renacimiento. La evolución hacia el Manierismo.
2. La arquitectura y el urbanismo del siglo XIX. Tendencias historicistas y eclécticas. La arquitectura del hierro y sus nuevas formas de construcción. Los inicios del funcionalismo.

Analiza estas dos imágenes: (2,5 puntos cada una)



Marko Aurelioren zaldizko eskultura / Retrato ecuestre de Marco Aurelio



Bredako errendizioa (Lantzak), **Diego Velázquez**, *La rendición de Breda (Las lanzas)*



ARTEAREN HISTORIA

Galderak ebaluatzeko irizpideak

1. Garai edo artista bakoitzak sortutako arte-adierazpenak bereizten ditu, eta haien estiloa, kronologia eta bilakaera ezartzen ditu. **(Puntu bi galdera bakoitzeko)**
2. Galderari erantzuteko, dagokion gaia hartzen du ardatz. Adierazpen argiak egiten ditu, errakuntzarik gabe eta terminologia artistikoa modu egokian erabiltzen du. **(1,5 puntu galdera bakoitzeko)**
3. Galderak dituen alde guztiei erantzuten die: forma- eta estilo-ezaugarriak, aurrekariak eta geroko eraginak. Eta balioesten ditu beren lanetan planteamendu berriak garatu dituzten edo bide artistiko berriak ireki dituzten artistak eta obrak. **(Puntu bat galdera bakoitzeko)**
4. Estilo eta mugimendu artistikoak, adierazpen artistikoak edo artista jakin baten obrak beren inguruko faktore ideologiko, ekonomiko, politiko, kultural eta sozialekin lotzen ditu. **(0,5 puntu galdera bakoitzeko)**

Irudiei buruzko iruzkinak ebaluatzeko irizpideak:

1. Artelana edo artista dagokion arte-estilo edo mugimenduekin kokatzen du, eta dituen ezaugarri propioak bereizten ditu **(0,75 puntu irudi bakoitzeko)**.
2. Proposatutako obra edo artisten alderdi tekniko, formal edo esanguratsuenak aztertzen ditu. **(0,75 puntu irudi bakoitzeko)**
3. Adierazpen argiak egiten ditu, terminologia artistikoa modu egokian erabiliz eta errakuntzarik gabe. **(0,50 puntu irudi bakoitzeko)**
4. Garai bateko lan eta artista garrantzitsuenak haien aurreko edo ondorengo aldikoekin lotzen ditu **(0,25 puntu irudi bakoitzeko)**
5. Artelanak eta artistak beren testuinguruko faktore ideologiko, kultural, erlijioso, politiko-sozial eta ekonomikoekin lotzen ditu **(0,25 puntu irudi bakoitzeko)**